



DEKALOGOIA

1.- Tokiko saltokietan erostea, gizarte-aldaketarako erreminta: ondorio biderkatzailea

Irungo herritar gisa, gure gertuko ingurunea alda dezakegu, gure erosketa-saskiarekin auzoko lanpostuak mantentzen eta sortzen lagun dezakegu, eta gure komunitateko bizi-kalitatea hobea dezakegu. Guk erabakitzen dugu gure dirua "handiei" edo "txikiei" eman. Gainera, horrek ondorio biderkatzailea du eta Irunen bertan geratzen den "aberastasuna" sortzen du.

2.- "Buruarekin" erostea

Erosteko erabakiak benetan dituzun premiei erantzun behar die; saia zaitez beharrezkoa ez den gastu hori saihesten, hau da, askotan "alferrikakoak" diren erosketa-saskiko "estra" horiek saihesten.

3.- Gozatu merkatariairen eta bezeroaren arteko harremanaz

Berreskura dezagun gure "konfiantzazko" merkatariairekin genuen harreman pertsonala, pixkanaka eraikitzen den eta "pozgarri" txikiak sortzen dituen harremana. Izan ere, "elkar ezagutze" horri esker gure erosketa gehiago egokituko da gure premia pertsonaletara eta gure inguruko pertsona, senitarteko eta lagunenetara.

4.- Familian erosten heztea eta ikastea

Nola erosi elikadura-produktu on bat? Nola eskatu? Zer osagai behar ditugu? Hori guztia ere ikasi egiten da: "ez dugu egiten ez dakiguna". Ikas eta irakats dezagun familian edo lagunekin erosten eta eskainitako zerbitzuaren eta produktuaren kalitatea baloratzen.

5.- Hitz egin euskaraz

Erabil dezagun euskara "saltzaileekin hitz egiten dugunean"; eman diezaiozun ikusgarritasuna gure hizkuntzari Irungo saltokietan nahiz kalean.

6.- Jakinarazi Irungo merkataritzaz nahi duguna eta espero duguna

Jakinarez ditzagun gure premiak banaka nahiz taldeka: entzun diezagutela eta beren zerbitzua eta eskaintza gure benetarako premietara egokitu dezatela.

7.- Merkataritza eta ostalaritza gizarte-antena gisa: esan diezagutela zer gertatzen den Irunen

Mota askotako jendea biltzen duten gizarte-topaguneak diren heinean, merkataritzak eta ostalaritzak Irungo benetako kultura-plataforma eta gizarte-sare fisiko bat osatzen dute, eta beraz, hirian gertatzen dena helarazten zaigu horien bitartez.

8.- Ingurumenarekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa

Merkatari gisa, izan gaitezen ingurumen-eraginkortasunaren eredu, energiaren kontsumo arduratsua eginez, hondakinak ahalik eta gehien murriztuz, eta abar. Eta bezero gisa, joan gaitezen oinez gertuko saltokietara eta utz ditzagun "ke zikinak" aparkatuta; aurrezteaz gain, bizitza osasuntsuagoa egingo dugu.

9.- Teknologia berriak eta merkataritza tradizionala bateragarriak dira

On line merkataritza, sare sozialak eta web orriak betiko merkataritzaren eta ostalaritzaren osagarri birtualak dira. Mundu birtualaren bidez, Irungo dendetan eta ostalaritzan kalean garatuko diren ekitaldien eta agendaren berri izan dezakegu.

10.- Eraiki dezagun tokiko merkataritzaren agenda denon artean

Zehaztu ditzagun zereginak eta datak Irungo hirugarren sektorearen egutegian; horrela, dekalogo hau erabili ahal izango dugu denboran zehar, pixkanaka, gure merkataritza-ehunarekin eta gure udalerriarekin konpromiso bat eraikiz: Irungo moneta lokala martxan jarriz, etorkizun hurbilean ixtera doazen saltokietan ondorengotza-prozesuak ahalbidetuz, eta abar.